

Itzurun-Arranpla 2017

Araudia

Antolatzailea:

TAOSA I.K.

Erakundea laguntzaileak:

Zumaiaiko Udala

Tokia:

Zumaia

Irteera Itzurun hondartzatik izango da eta helmuga Arbustaingo arranplan. Kontutan izan itsasoz 3000m den ibilbidea oinez 450m baino ez direla.

Data:

2017ko abuztuak 19.

Ordutegia eta ibilbidea:

Eguerdiko 12:30tan emango zaio irteera probari Itzurungo hondartzatik. Itsas zeharkaldiak, Itsaso zabalean zein ibaian zehar doan ibilbidea uztartzen ditu. Guztira 3000m-ko zeharkaldia izango da non 2000m Itsaso zabalean egingo diren eta azken 1000m-ak berriz ibaiaren ur lasaietan. Itsas zeharkaldia marea goruntz dohala jokatu da, ibai barruan segurtasuna areagotuz.

Igerilariak zeharkaldian aurkitzen dituzten boiak, igerilariaren eskubitara utzi beharko dituzte haitzetatik urrun mantentzeko.

Kategoriak

- A Kategoria (beteranoak): 55 edo gehiagoko igerilariak.
- B Kategoria (Master +): 45 eta 54 urte bitarteko igerilariak.
- C Kategoria (Masterrak): 35 eta 44 urte bitarteko igerilariak.
- D Kategoria (Seniorra): 15 eta 34 urte bitarteko igerilariak.

Kategoria ezberdinetarako azaldutako adinak, lehiaketa burutzen den urtearen abenduaren 31ean betetako bezala onartuko da.

Taosa Igeriketa taldea. taosaigeritaldea@gmail.com / itzurunarranpla@gmail.com

Ez da 15 urte baino gutxiago dituen igerilaririk onartuko.

Izenemateak

Izen emateak www.kirolprobak.com web orriaren bidez egingo dira.

Izen emateko epea 2017ko ekainaren 6an irekiko da goizeko 10:00tan eta 2017 abuztuak 18an itxiko da gaueko 23:59tan (edo partaide kopurua betetzen denean).

Parte hartzaile guztientzat, zeharkaldiaren prezioa 20€koa izango da. Txipa horia duten parte hartzaileen kasuan berriz, 23€ izango da txip zuriaren alokairua dela eta. Txip zuria proba amaitu ostean itzuli egin beharko da helmuga bertan.

Partehartzaile kopurua 400 igerilarikoa izango da.

Partehartzaile aldaketa ez da onartuko. Izenematea guztiz pertsonala eta transferiezina da, eta ezin du izena eman duen ez den beste persona batek erabili.

Edozeinek bere plaza beste norbaiti transferitzen badio, ekitaldian istripu baten kasuan edo honek gauzatu ditzakenen zuzenean arduradun izango da. Egoera honetan, antolakutza ez da arduradun izango istripu bat gertatu ezker. Antolkuntzak parte-hartzaileen artean bata besteari dortsala ematen edo onartzen diola ikusten badu, zigorra jartzeko eskubide erreserba izango du.

Dortsalak, txipa eta igerilariaren poltsa jaso

Igerilariaren poltsa, dortsala eta txipa (Alokairu kasua) jasotzeko Arbustaingo arranplan jarriko den karpan jaso ahal izango da **9:30tik 12:00tara**. Materiala ahalik eta lasterren jasotzea gomendatzen da azken orduko pilaketak ekiditzearren.

NAN erakustea beharrezkoa izango da "Igerilariaren poltsa" jasotzeko orduan. Izenematearen ordain agiria eramatea gomendagarria da sortu daitezkeen arazoak azkarrago konpontzeko.

Kontsigna

Erropa eta gauza pertsonalak gordetzeko kontsigna zerbitzua izango da. Lehen kontsigna irteera puntuan egongo da (Itzurun hondartzan) eta bertan utziko dira igerilarien erropa eta

material guztiak. Proba amaitu eta gero helmugan (Arbustaingo arranplan) bertan jarriko den kontsignan berreskuratu ahal izango dira erropa eta objektu guztiak.

Sailkapenak eta garaikurrak

Sailkapen orokor bat egongo da eta baita kategori eta sexu araberakoa ere. Garaikurrak probaren irabazleentzat egongo dira bai neska eta mutilzkoentzat, eta baita kategori eta sexu bakoitzeko lehen sailkatuentzat ere. Azkenik lehen herritar neska zein mutilzkoentzat ere garaikurra egongo da.

Garaikurren banaketa helmuga inguruan ezarriko den podium-ean izango da 19.00tan.

Bestelako arauak

Araudi honetan aurreikusten ez dena GIF-aren Ur Irekietako lehiaketetako araudian azaltzen denarekin beteko da.

Neoprenozko trajeak **EZ** dira onartuak izango

Froga bertan behera uztea. Arriskurik ez.

Antolatzaileak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo beste egun batean jokatzeko eskubidea izango du. Irteera emango balitz, proba ospatutzat emango da, naiz eta bidean bertan behera utzi. Proba bertan behera geratzen bada, izenemateagatik ordaindutakoa ez da itzuliko.

Ibilbide alternatiboa: itsas baldintzek froga itsasoan ospatzea arriakutsua dela ikusiz gero, Urola ibaian ibilbide alternatibo bat proposatuko da. Ibaian posible izango ez balitz bertan behera utziko litzateke froga.

Gomendioak

Aparkalekuak: Udara garaian egongo garela eta aparkalekuak aurkitzea zaila izango da. Garraio publikoa erabiltzea gomendatzen da eta ezinezkoa izanez gero Ayra-Durex enpresaren industrigunean dagoen aparkalekuan uztea izango litzateke aukera bat edo baita tren geltoki atzean dagoen industrigunean. Kirol portuan dagoen aparkalekuan izango litzateke beste toki egoki bat. Azken honetan, ibaia zeharkatzeko txalupa zerbitzua dago (Ez da dohako zerbitzua).

Helmuga inguruan bi TAO eremu daude:

- Moila bertan: errotazio handiko eremua (Urdin eta gorriz markatuta). 1,5 orduko gehienezko egonaldia larunbat goizetan 9:00tik 13:00tara eta 6 orduko gehienezko egonaldia 13:00tik aurrera.
- Julio Beobide pasealekuan: egonaldi erdiko eremua (Urdin eta berdez markatuta). 6 orduko gehienezko egonaldia.

Informazio gehiagorako Zumaiaako Udaleko webgunean aurkitu dezakezu:

<http://zumaia.eus/es/ota>

Igerilarien laguntzaileak: igeriketa froga ikusteko aukera anitzak daude. Ia froga osoa ikusteko aukera dago: irteera Itzurun hondartza bertatik ikusi daiteke eta beste dena paoleko barra muturretik hasi, Julio Beobide pasealekuan jarraitu eta azkenik zuzenean Arbustaingo Arranplaraino. Azken kilometro osoa igerilariekin parez pare joateko aukera dago bertatik bertara animoak emateko.

Taberna eta jatetxeak: Helmugako Arbustaingo Arranpla inguruan taberna ugari dago. Urbilenak Arranpla beraren aurrean dagoen etxe blokearen azpian daude gertukoenak. Oso gertu baita ere, Erribera kalean hasi eta Eusebio Gurrutxaga plazaraino taberna eta jatetxe asko daude. Irteera bertan ere, Itzurungo hondartzan, taberna bat dago bazkari eta afariak ere ematen dituenak.



